

## Bilboko lehen oroitzapena

*Bilbao*, 1988-05-23.

Bilbo aldizkarirako lehen lantxo bat idazterakoan, gaia Bilbo bera izan behar duela deritzat.

Ni lehen aldiz Bilbora heldu nintzenean, hamalau urteko mutikoa nintzen eta gerratea zen; hasi berria, hain xuxen; Andoaingo etxetik abuztuko hasieran irten ginenetik bi hilabete pasiak ziren, eta handik aurrera gure familiaren etxealdaketak erreskadan bost izan ziren: Hernani, Donostia, Zarautz, Mundaka eta, azkenik, Bilbo.

Beti atzeraka, noski.

Joseba eta niretzat, bi anaiontzat, Donostia lagatzea izan zen mingarriena, han utzi behar izan baitgenituen gure lengusu bat, Pepito, ehortzeko denborarik gabe deposituan, eta izan genituen beste bi bajak: "Tadi" eta "Lagun", bi txakurrak. Mundakako egoitza izan genuen iraunkorra, hilabete ingurukoa. Eta azkenik, Bilbora heldu ginen, beraz, eta ez naiz gogoratzen nolatan egin genuen bidaiia hau: badakit ordurarteko oinezkoak eta gauezko kamiogainezkoa baino partxaragokoa izan zela: daitekena da trenez izatea. Henao San jarri zituzten Andoaingo eta Hernaniko udalak, eta gure aita lehenengokoan zinegotzi eta arduradun zenez, han jarri ginen bizitzen beste zerbait aurkitu artean.

Hemen bete nituen nire hamabost urteak, azaroan.

Lehenengo aldia zen hiri handi batean egoitz iraunkorra genuela, eta Bilbok sorrarazi zizkidan zirrara haiek ez zaizkit bizi naizen artean ahaztuko; Eskolapioetako inguru hura izan zen aurreneko erreferentzia, eta urrun ez zegoen Academia Belandiarra joaten nintzen Andoaingo La Sallen hasi berriak ziren Batxilergoko ikasketak jarraitzera; klasetatik irten eta Arenalera joatera ausartzen nintzen, gehienbat han jendetzaz, inguratuta pintatzen aritzen baitzen Bayon izeneko artista, bat-bateko kuadroak egiten; beti bat: gerrako egazkinen arteko borroka, eta egazkin bat beti sutan goitik behera; gaurkotasuna bazuen eszena hark, sirenotsak sarritan entzuten baitziran orduan; morala altxatzeko balio zuen; gezurtxo bat geratzen zen agerian kuadro haietan, gure egazkinak botatzen zituenak, beti piperpotoz eta nazi-ikurraz pintatutakoak ziren; baina, bestalde, horretxetarako zegoen artista han, morala jaso eta presaka egiten zituen kuadrotxo hauek zozketan saldu eta diru honekin armak erosteko. Bestalde, ikusten nituen gudarien desfileak, bihotza hestu, batez ere Carlton inguruan. Hunkigarri gertatzen zitzaidan Lehendakari Agirreren hain gertu egotea. Zinera ere joaten ginen ni baino urte t'erdi gazteagoa zen anaia eta ni; gehienetan, Buenos Aires kaleko "Actualidades" zinetokira, eten gabe zabalik egoten baitzen filme laburrak eta marrazki bizidunak ematen; joaten ginen batzutan Korreos inguruan dagoen beste batera ere, "Campos Eliseos", nik uste, eta Gran Viako beste batera, Western-ak ikustera, behin nire anaitxoari aulki luzez osatutako "gallinero" hartako ixkanbilan ipurditxoa ukitu zioten arte!

Abiadan irten ginen ikaratuta.

Ibaia, eta itsasontziak ziren nire harridura!

Harrez gero geratu zait ontzi galant haien eta gabarra beltz handien eta ibaia beraren kemen zabal mantsoak sortutako mirespena; gaur oraindik gai horretaz idazteko geratu zaidan ametsak han izan zuen sorrea.

Idatzi, ordurako hasia nintzen. Barcelonako *Pulgarcito* eta *TBO* haurren aldizkariak heltzen ziren Catalunyatik, eta hauek eratzen zituzten idaz-lehiaketara nire lantxoak bidaltzen nituen, eta, ongi gogoratzen naiz! nola Fernández del Campo-ko etxebizitzara heldu zitzaidan irabazitako sariaren paketetxo bat abentura-liburuekin.

Nola ahaztu honelako zerbait?

Henaotik orain aipatutako etxera etorri ginen, eta hemen bizi ginela erori ziren bonbak Zabalburun, gertu! oso, eta "Euskalduna" frontoian, gure etxearen atzean! Etxean nintzen amarekin, eta eskailera behera jaisterakoan erori zitzaion amari bizkarrean etxe zahartxo haren gapirio bat!... Irten nintzen, ama ezin eramanez, eta hor zetozen Zabalburutik behera plazan lertutako ur-tuberietatik uholde handi bat, odola ere bai ur lohitu hura gorritzen! eta norbaitek esan zidan ama utzi eta joateko gora zaurituak ateratzera! baina nahikoa nuen neuk ama errefuxiora eramateko ahaleginarekin eta beldurrarekin.

Anaia ez zegoen gurekin, egun hartan bertan, edo bezperan, ez nago ziur, eraman genuen "Cuba" itsasontzira, infernu hartatik atzerri bidean jartzearen.

Oraindik nigarrez geunden.

Handik laster erori zen Bilbo, eta ihesari eman behar izan genion berriz; oraingo honetan, Abandinon Gernikako bonbaketak harrapatu zituzten izebak eta lengusuekin batera, trenez, zer janik gabe, azkeneko trastetxoak galduta, aita non zen jakin gabe, Santander bidean.

Egun iluna izan zen hura!

Han geratu zen Bilbo, Artxandako borroka hasia zenean. Ehun egazkin, handibeltz alemandarrak eta Italiako txistulari txikiak bertikalean zerutik erortzen... Neronek kontatu nituen ehun eta gehiago...

Norbaitek esan izango dit hori neuk ametsetan kontatuko nituela, ez zela hainbeste egazkin Bilbon ikusi. Daitekena da, noski, aspaldiko izua da eta. Baina gezurra eta egia askotan elkarrekin bizi izan baditugu ere, geroztik ikusi ditut gezurra diruditen egiak, ez gutxi, eta egia hori ez dut neuk demostratu behar, gezurra dela diotenak baino.

Gernika, exenplu.

Baina orain Bilbo da gaia eta ez atzerriko Santander eta Frantzia eta exilio garratza eta luzea.

Hementxe geratzen da, bada, nire Bilboko lehen oroitzapena.

Samina.